

Goi

Goierritarra aldizkaria

403 zenbakia 2011ko ekainak 17



**OLABERRIKO
HISTORIA
HAURRENTZAT**

AINHOA MOIUA ETA ORDIZIARROCK

MUSIKA GORRENGANA GERTURATUZ




ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Ε Μ Ψ Ε

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo CXTÉ ROMEO GIGI



faktore

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea



GOIERRIKO **hitza** info

Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
urtean 29 euro

HITZA ☐
urtean 70 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
urtean 75 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea • Beasain



Irati Goikoetxea

"Margotu irudia eremutik atera gabe". Garajen aurkittu diat lau urtekin margotu nian kurtsu bukaerako marrazkie. Ez eremu ta ez arrasto, kolore nahasketa bat, ez diat besteik ikusten nik indako lanen ta azpikalden hizki narrats samarrakin aitatxontzako ta amatxontzako. Ez galdetu lau urtekin nola asmau nian zerbait idazten, irakaskuntzak ikasturte bukaeratan itten dittun milagro izango ittuk.

Ez goitik behera ta ez ezker-eskuin, beti margotu izan diat zeharka-zeharka. Ta hola ez dek erreza eremu-mugak errespetatzea. Nik nahiago izaten nian eremun inguruko lauzpabost kolorek nahastu.

Kontue dek azken eunotan udal osatu berrin mapak margotzen aittu naizela, ta umetan bezela, ez goitik behera ta ez ezker-eskuin, zeharka-zeharka margotuz jarraitzen deala. Datozen lau urteotako gure udal politikariri hoixe eskauko nieke, haustura, banaketa ta fronteik peko zeharkako politikei heltzeko... ta herrie bultzaka-tiraka eaman gabe, herrie erakarri ta herrikin batea herrie eraikitzen hasteko... ta hartutako ardurekin koherentziz jokatzeko...

Datozen lau urteotako gure udal politikariri hoixe eskauko nieke, haustura, banaketa ta fronteik peko zeharkako politikei heltzeko...

ta gehien behar duenan ondón (etorkin, langabe, babesgabe) eoteko... ta kultura sortzaile, parte-hartzaile ta aktibo baten aldeko apustue itteko... ta natura begirunez maitatzen hasteko... ta atek aldeik alde zabalik izango dittun ta herriarren inziatiba ta dinamika bilduko dittun udaltxe bat sortzeko.

Herritar bakoitzak bere herrie bizi ta sentittuko don herrin sinisten diat. Ta hortako ezinbestekoa dek ezertan hasteako herritar oro barne hartuko gaittun elkarbizitza-amarauone ondo jostea.

Oaintxe ez zakiat, Ekaitz, hikin o Koldokin ai naizen hizketan... Aukerea probestuko diat... Zorionak, Koldo, hiregain hartu duan ardurakatio! Nik herritar hoitako bat izan nahi diat, beaz... hemen dittuk bi esku.

Ekañen euzkie lurren gañen.

Gaonetan ze zebratu izate ez deun lurtar xebebreok, sukaldeko paiten zintzilikautakok ez bezela, San Martzialan bueltan gorritzen diñau gere kalendarioa. Eunen luzatzea, kukun mututzea, uza bildu aurreko lanak bukatzea, suspensioa, suspensioa... Argi-itza-len hilaeteta den ekañe, norbee lana ta ingurukona baloratu ta epaitzeko pausaleku bikañe. Hala izan den jun daneko hoitamar urteotan, ta aurrea re larri ibili. Izan e, urtea jun urtea etorri, lañon bat gora-behera, ezer gutxi aldatzen den lurtar xebebreon zerupe hontan; pentsa, urtek beak e, hirurehun da hiruroitabost eun behar izaten dizkin lau zenbakitako bakararra aldatzeko.


Aurten e hiru hilaeteko atzeapenakin allauko zaiun santu-santan prozesioa: San Pedro, San Fermin, Santa Ana, San Inixio, San Bartolome... Ta danan buru, San Joan. San Joan, bai, kristau ta ez-kristau gehienan santue. San Joan, bai, hemen jun in behar izaten baiten, oporreta, bakiñ; ez zeon geatzeik, jun, irailen oporreta noa jun

Garune sormeneako, mingaño euskerako, eskuk ezberdinen arteko laztanetako, bihotza maitasuneako, hankak pauso berritako.

zeate? galderei ze eantzun izateko besteik ez paa. Arrazoi din Karlos Linazasorok, geo ta gehio goazan ta gutxigo gailtzen; gu ekologistak.

Bai, aurten e juteko etorriko dittun San Joanak, baño aurten sun ingurun juntauko gean gauerdiko itzalen buru-bihotzak ondo berotu ta argittuta jutea nahi niken, belar txarrak erre ta amets berrik ihintzez bustita. Ta ze arraio, hik bezela, nik e herrin eskua jarriko dizkiñat nee gorputz atalak donaziok hil ondoeneako utzi bae: garune sormeneako, mingaño euskerako, eskuk ezberdinen arteko laztanetako, bihotza maitasuneako, hankak pauso berritako.

Has gaitezen, ba, alkarrengana bildu ta argiri bidea eakusten, ia aurten behintzet ekañe ez deun iraileako uzten.



Ekaitz Goikoetxea

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Gure gonapeko edo galtzei lotuta bizi
nahi duten seme alabek ezin diote
ezer berririk ekarri gizarte honi.



Iñaki Murua

Bestea eta ni, ni eta bestea: hori da heztea!

Heztea seme alabei etxetik ihes egiten erakustea da! Hori dio gure lagun Erramunek. Horrela zen gure aitona-amonekin... eta gurasoekin... eta guk ere horixe egin genuen ahal bezain laster, aurrena ikasteko aitzakian, geroago soldadutzak behartuta eta azkenik geure bidea erabat osatu asmoz.

Azken boladan (behar bada halaxe tokatzen da kurtso amaiera guztietan) egundoko ahalegina somatzen dut gurasoen aldetik seme-alabak erabat babesteko eta ez hezteko asmoz egina baizik eta momentuan daukaten korapiloa askatzeko nola edo hala. Kurtsoa pasa da eta orain ari dira zeruak eta lurak astintzen irtenbide bila eta orain arte egindakoa zer izan da? Horrek ez dio axola ala?

Eta bizitzan ez ote dute/dugu hainbatek berdina egiten? Adibide batzuk jarriko dizkizuet:

- Andoainen artelan bat eraitsi eta itxitako lantegi batean abandonaturik daukate, altuera handia omen zuelako eta haurrak erortzeko arriskua zegoelako... kendu arrisku denak; itxi leiho eta ateak, balkoiak eta zubiak; haurra erortzen bada ez utzi berekasa jeikitzen ezta negar egiten ere... Zer entrenamentu ari gara eskaintzen bere buruaren jabe izan dadin?
- Gasteizko jangela batean kutxiloa erabiltzea galarazia zuten ikasleek eta jangelako laguntzaileek ebaki / zatitu behar zieten oilasko bularkia edo xerra edo... baita sagarrak zuritu ere. Ondorioz, menuan arroza tomatearekin jatea tokatzen zenean, jangelako laguntzaileek nahastea eskatzen zuten haurrek... haurrak azkarrak baitira eta batez ere erosoaren aldeko apustua egiten dutenak, horrela ohituz gero!
- Eskolan nesken arteko pelukeria ikastaroa... eta haurrak izaki, batek beste denei, ile mataza bikaina zuten lekuan, egundoko kaskatarak egin eta dena desitxuratuta utzi, baita bere ile mataza zoragarria ere... egilearen aitzak sekulakoak eta bi bota zizkien bere alabaren gelakideei, motxailea berea izan zitekeenik burutik pasa ere egin gabe... baina aitatxok bere aingerutxoari sinetsi (nola ez!) eta besteak ezer esaten hasteko aukerarik utzi gabe, epaia eman eta erabakia hartua: zuek pekatari!
- Arropa erostera edo oinetakoak edo... berehala ohartzen gara nork duen erabakimena eta azkeneko hitza: dendariak zapa-

tak begi bistan jarri orduko, probatzen hasteko astirik gabe, umeak honako hau bota du “Ama, zapatila horiek mina emango didate e?” Eta amak, “lasai maittea, ez ditugu erosi-ko”. Orduan amak dendariari “sacame otro tipo de zapatilla, no quiero tener que oír todos los días la misma canción”. Erderaz, umeak ez ulertzeko. Eta edozein hizkuntzatan esandare ulertu ote liteke?

- Joan zen larunbatean neure ilobarekin, “Iker, sagar hau ihartu sagarra dek eta amonak menbriloa eitten dik honekin”. Eta berak “... menbriloa? Zer da hori? Ba gaztakin eta jaten den karamelo koloreko janari goxo goxoa. A, nei etzat gustatzen! Eta probatu al dek? Ez baino badakit etzaidala gustatzen!”.

Mundua guraso eta seme-alaben arteko gatazkak aldatzen du, ez ditugulako zirkunstantzia berdinak edo zirkunstantziak berdin bizi. Gure gonapeko edo galtzei lotuta bizi nahi duten seme/alabek ezin diote ezer berririk ekarri gizarte honi. Agian, besteok esandakoa egingo dute edo besteen esaneko izango dira baina beurrak izango ote?

Ezinezkoa da gurasoen kriterioa beti seme alabekin aplikatzea... eta gainera eroriz ikasten da nola jarraitu bizitzako bidea; erori eta altxatzen norberak ikasi behar du, horrek emango dio entrenamendua ezinari aurre egiteko eta ez erortze horren arduradun eta erantzule gurasoak izateak.

Orain azterketa eta ebaluazio garaian, garaipena eta porrota ezkutatu beharrean, emaitzak jasotzeko garaia da eta behar diren neurri zuzentzaileak jartzeko edo adosteko. Egoera ezkutazearekin edo maila edonola gaitzitatearekin ez dugu ezer konpontzen, atzera pausoak eman besterik ez, eta arazoa sakonago azalduko da denbora aurrera joan ahala. Behar bada, babesteko gu ez gaudenean eta orduan hasi beharko dute profesionalen kontsultetara bisitan, haien aholkuen bidez guk konpondu beharrekoa diru truke konpontzen. Badakizue, haurtzaroan pasa beharreko gaixotasunak heldu eta gero harrapatzeak eragin askozaz bortitzagoa duela diote sendagileek...

Garaipena edo porrota ikaslearena da seme-alabena eta ez gurasoena (arbitroarena ere ez!). Baina emaitza porrota denean irtenbidea aurkitzen saiatzea eta norberak aurre egiteko erantzukizuna har dezan eragitea, hori bada gurasoen egitekoa. Garaipena denean, zoriontzia eta dagokion neurriko goratzea tokatzen zaion modu berean.

Gasteiza iritsiera

24. ibilbidea:

Pipaon - Bastida

Eguraldi eta ibilgiro onarekin, maiatzaren 17an, 43 mendizalek, Kantabria mendien bigarren zatia zeharkatu zuten Toloño gailurreraino. Etapa polit hone-tan, mendilerroko ertz ikusgarriak, pasabide historikoak, pagadi bikainak eta ikuspegi zabalak begiztatzeko dira.

Ibilbidea eta denborak:

Pipaondik (840m) Arabako mendien eta Ebroko lautadaren arteko garai bateko Recilla lepoko pasabide estrategikora iritsi ziren (1.267m; 4km; 1:15). Ondoren, Recilla gailurrera igo ziren (1.381m; 4,4km; 1:25). Recilla lepotik (1.267m; 4,8km; 1:40) Cervera gailurrera iritsi ziren (1.385m; 5,3km; 1:55). Handik, Vallehermosako lepora (1.211m; 7,5km; 2:50). Pipaongo lepotik (1.095m; 9,4km; 3:30) Herrera mendatea (1.100m; 10,7km; 3:50) eta Rivas mendatea lotu zituzten (945m; 16km; 4:55). Jarraian, Toloño gailurrera iritsi ziren (1.271m; 21km; 6:25). Erdi erori-



ta dagoen XIV. mendeko monastegiaren albotik igaro ondoren, San Gines parkean bukatu zuten (640m; 24,7km; 7:25).

Gorabehera metatuak: igoeran: 1.080m; jaitsieran: 1.360m.

25. ibilbidea: Basatida - Trebiñu

Eguraldi onarekin, maiatzaren 24an, 40 mendizalek, hegoaldeko iparraldera joan ziren, Arabako mendilerro batzuk zeharkatuz, gari-soro zabaletan barrena eta Trebiñuko konderriko lurrik gehienak ikusiz, bertako hiriburura iritsi ziren.

Ibilbidea eta denborak:

San Gines parketik (640m) gorenean gaztelu bat daukan Ozio herrira iritsi ziren (525m; 9,8km; 2:00). Gero, GR-1etik, Txulato lepora (840m; 14,4km; 3:05) eta ondoren Txulato gaina zapaldu zuten (946m; 14,8km; 3:20). Txulato lepora jaitsi (840m; 15,2km; 3:35) eta Berganzoko bidetik (630 m; 19,7km; 4:50) Escudillako lepora heldu ziren (810m; 21,6km; 5:15). Handik, Trebiñuko konderrian dagoen Billa Tobera herrira (560m; 25,1km; 6:30). Ondoren, konderriko lurrik ederki ikusten diren Cerro gainera iritsi ziren (901m; 30km; 7:55). Ibilbidea, Trebiñu herrian bukatu zuten (552m; 33km; 8.40).

Gorabehera metatuak: igoeran: 1.040m; jaitsieran: 1.130 m.

26. ibilbidea: Trebiñu - Gasteiz

Giro nahasia eta aldakorarekin, Ekainaren 1ean, asteazkena, 43 mendizalek, Trebiñuko konderria zeharkatzen amaitu ondoren, Zaldiaran mendatea ezkerretara utzita, Gasteizko mendietan gainik gain jarraitu zuten eta egitasmoa 5. egiten duen Gasteiz hiriburuan bukatu zuten ibilaldia.

Ibilbidea eta denborak:

Trebiñutik (552m) Arrieta herriraino (660m; 5,6km; 1:10). Ondoren, Doroño herriatik (700m; 7,7km; 1:35) Reventón lepora iritsi ziren (838m; 9,2km; 2:10). Handik, Arrietako (998m; 10,8km; 2:35) eta Rostetako gainetara igo ondoren (917m; 13km; 3:15) Gasteiz eta Urizaharra lotzen duen mendatera jaitsi ziren (750m; 15,3km; 4:05). Jarraian, Lendiz gainetik (852m; 17km; 4:30) Kurutzmendira (800m; 17,8km; 4:45). Handik, Gaztelu herrira heldu ziren (606m; 19km; 5:10). Bertatik, ikuspegi zabala daukan Olarizu gainera igo ondoren (710 m; 20,6 km; 5:30), Olarizuko barrutitik barrena, Gasteizerraino joan ziren (552m; 22,7km; 5:55).

Gorabehera metatuak: igoeran: 755m; jaitsieran: 760m.

TERAPIA ALTERNATIBOEN ZENTROA

Oriamendi, 24 - Beasain

Osteopatia, Sakro-garezurreko Terapia, Masajea, Reflexologia - **Arantxa Urkia: 606 381 534**

Homeopatia, Masajea, Sakro-garezurreko Terapia, Kiropraxia - **Maite Larraza: 656 325 005**

Super... mega eta hiper lagunekin batera

Maizpide euskaltegia

Ez haserretu, irakurle, ez gara adarra jotzen ari eta! Kontua da kalean gero eta indar handiagoa dutela izenburuan aipaturiko-ek... eta gure euskara egunetik egunera pobretzen ari ez ote den susmoa dugula. Badakigu gaztelaniarekin gauza bera ari dela gertatzen, baina hori ez da motibo aurrean dugun “arazo-

txoari” konponbiderik ez emateko!

Erreparatu ondorengo bi zutabeei: bata, ezkerrekoa, aski ezaguna da gaztetxoan artean; bigarrena, eskuinekoa, askoz jatorragoa iruditzen zaigu...

EUSKARA “PIZZEROA”

Bernardo Atxagaren azken eleberria *superluzea* da

Charles Chaplinen pelikula hori *superzaharra* da

Mendian *superrondo* pasatu dugu

Josuneren tartak *superronak* dira

Suitzako gizon hori *superraberatsa* da

Zure senarra *superrondo* bizi da

Maritxu *superpolita* / *superdotore* etorri zen jaialdira

Azterketa *superrondo* egin nuen

Estitxu Fernandez *supersexy* zegok argazki horretan

Nire mutilaren BMWan *superrazkar* iristen gara leku guztietara

“Da tipo bat *superjatorra*, tia!”

EUSKARA HERRIKOIA

Bernardo Atxagaren azken eleberria *garizuma baino luzeagoa* da

Charles Chaplinen pelikula hori *haize hegoa baino zaharragoa* da / *ez da atzo (edo gaur) goizekoa*

Mendian *primeran* pasatu dugu

Josuneren tartak *mundialak* / *oso goxoak* dira

Suitzako gizon horrek *Rotxillek* (edo *Bill Gates-ek*) *baino diru gehiago du*

Zure senarra *erregearen pare* / *primeran* bizi da

Maritxu *oso dotore* / *bentizinko baino dotoreago** etorri zen jaialdira

Azterketa *ezin hobeto* / *primeran* / *bikain* egin nuen

Estitxu Fernandez *jateko modukoa* zegok argazki horretan

Nire mutilaren BMWan *tximista baino azkarrago* / *aiteren batean* iristen gara leku guztietara

Oso mutil jatorra dun! *Ezin jatorragoa* dun!

* Izango da horrelako esamolde zaharrak erabiltzeari ondo iritziko ez dionik. Tira, adibide horretarako “hain gazte ez direnek” zer darabilten erakutsi nahi genuen. Beraz, ez erretxindu!

Hi, ni ez naun/k toreatzailea, e!
Ni SUPERMAN naun/k!
Indartsu baino indartsuagoa, tximista
baino azkarragoa, bentizinko baino
dotoreago janzten dena...
eta jateko moduko gizona!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...


1. Jo, tio, zea superguay!
2. Jo, maja, jarri digute azterketa bat... superzaila!
3. Hipernekatuta nago, Nagore!
4. Ama, gaur supertxintxo portatu naiz, ezta?
5. Superman heroia Louise Lane izeneko kazetariarekin mai-temindu omen zen.
6. Gure baserriko hozkailua Super Ser etxekoa zen.

OHARRA: lehenengoan “Dedio, mundiala haiz” (edo horrela-ko zerbait) proposatzen dugu; bigarrengoan, “Neska, oso azterketa zaila jarri digute; hirugarrengoan, “porru eginda / leher eginda”; laugarrengoan, “txintxo baino txintxoago”; bosgarrena eta seigarrena zuzenak dira (kar-kar!).



Superman.. goierritarren irakasle berria!

Iñaki Ugalde



“Mutiloako sagardo dastaketak duen arrakastaren sekretua, antolakuntza, jendearen inplikazioa eta urteetako esperientzia dira”

Hirugarren legegintzaldia estrenatu berria du Iñaki Ugaldek Mutiloko alkatez. Esperientziak ematen duen patxadarekin hartu du kargua, erronka berriei aurre egiteko gogoarekin. San Pedro festak gainean dituzte Mutiloan eta aurten ere mutiloarrek eta bertara inguratzen direnak gustura utzi nahi dituzte.

3. aldiz Mutiloako alkate, zer suposatzen du zuretzat?

Erronka handia zalantzarik gabe, baina, errepikatzean beste patxada batez hartzen dira gauzak.

Hala ere Mutiloako udala osatzeko bilkuran, ez zen telebista kamararik izan.

Ez, lasai-lasai joan zen dena.

Herri txiki, buru-hauste txiki?

Ez pentsa, txikietan ere izaten dira burukomin handiak.

Zein da duzun erronka nagusia?

Mutiloan meatzaritzaren inguruko ondarea berreskuratu eta Errotatxo eraikinaren berreskurapena.

Zer da herri txiki bateko alkate izatearen alde txarra?

Edozein une aproposa dela edozer esateko.

Eta alde ona?

Herriko jende guztia ezagutzen duzula.

Zein da Mutiloako sagardo dastaketak duen arrakastaren sekretua?

Antolakuntza, jendearen inplikazioa eta urteetako esperientzia.

Paella jana, patata tortila lehiaketa, sagardo dastaketa,

oilasko erreka, txokolate jana, gazte bazkaria, ardo banaketa, herri afaria... Jan-edanik gabe ez al dago jairik?

Horren inguruan ekitaldi asko egiten ditugu, baina arrakasta izaten dute.

Joselu Anaiak, bizi al dira ba? Galdetu du norbaitek.

Batek baino gehiagok galdetzen dit, baina ikusi egin behar da nola betetzen duten plaza.

Mutiloako jaietako une bat:

Sagardo dastaketa.

Mutiloako txoko bat:

Aitzburuko gaina.

Mutiloan biziko ez bazina...

Itsasertzeko herri txiki batean.

Mutiloakoak ez diren jai batzuk:

Oso festazalea naiz. Beste herri txikiren batekoak.

Abesti bat:

Itoizen ‘Txantxangorria’.

Oporretarako leku bat:

Asturias oso gustoko dut.

Janari bat:

Nik egiten dudana crema eta natazko hojaldrea.

Edari bat:

Sagardoa.

Amets bat:

Zoriontsu izaten jarraitzea.



“Zeinu
hizkuntzako
itzultzailea
bizitzako arlo
guztietan
edukitzen
ohitu behar
gara”

Bideo klip batek egin du ezaguna Ainhoa Moiua goierritarra. Zea Mays taldearen ‘Negua joan da’ abestia zeinu hizkuntzan abesten eta sentitzen ikusi dugu. Oihartzun zabala izan du Ainhoaren ekimen berritzaileak eta entzumen urritasuna duten pertsonen arazoaz kontzientzia zabaltzea lortu du. Zeinu hizkuntzako itzultzailea izateaz gain, Mondragon Unibertsitateko irakaslea ere bada Moiua.

Seguran bizi da Ainhoa Moiuia (Beasain, 1982) eta egunero Eskoriatzara arteko joan-etorria egiten du autoz. Musika entzuten joaten da. Kantari joaten da, hizkuntza bezala, zeinu hizkuntzaz baliatuz. Zea Mays taldea oso gustukoa du eta talde horri esker eramangarriagoa egiten zaio 45 minutuko bidaia. Egunero autoan ordu eta erdi ibili beharra nekagarria egiten bazaio ere, emankorra ere izaten da tarte hori. Buruak lan asko egiten du eta hantxe sortu zitzaion Zea Mays taldearen 'Negua joan da' abestiaren bideo klipa zeinu hizkuntzan grabatzeko ideia.

Zeinu hizkuntza izan da, gorputz adierazpenarekin batera, Ainhoak erabili duen hizkuntza. Oihartzun handia izan du Moiuaren lanak eta harrituta dago izan duen harrerarekin. Ikusi ez duenak, interneten, goierritarra.hitza.infon ikus dezake. "Mondragon Unibertsitatean, Huhezin lana egiten dut. Noizbehinka egiten dut itzulpena. Nire denbora librean egiten dudana erakustea izan da helburua. Momentu batez garrantzia hartu du zeinu hizkuntzako itzultzaile lanak", dio Moiuak.

Zein helbururekin egin zenuen bideoklipa?

Jendeak nik zein lan egiten dudana ikustea nahi nuen. Zea Mays gustatzen zaidanez eta zeinu hizkuntza itzultzailea naizenez, zerbait egitea pentsatu nuen. Beti Zea Mays entzuten aritzen naiz. Bi abesti grabatu nituen etxean, eta Bonberenean zeukaten kontzertura eraman nizkien, opari gisa. Hiru egunera deitu zidaten, bideo klipa grabatuko genuela esanez. Harrituta gelditu nintzen. Nire buruari galdetzen nion: 'hau nork ikusi behar ote du!'.

Jende askok ikusi du bideo klipa, oihartzun handia izan du. Ez zenuen espero halako zabalkunderik?

Ez, ez!! Ez nuen harrera hori espero. Zein eragina daukan internetak gauzak zabaltzeko! Gor lagun batzuei eta lagunei bidaliko niela pentsatu nuen. Bat-batean ikusi nuen Teleberrin atera zela eta poliki-poliki oihartzun handia izan zuen. Oso pozik gelditu naiz. Nire ametsik onenean ere ez nuen pentsatuko horrelakorik.

Gorrekin egon zara? Gustatu al zaie?

Asko gustatu zaie. Espresibidarekin harrituta gelditu dira. Itzultzaile lana utzita daukat eta askok esan didate ez nuela utzi behar. Beraien hizkuntza musikan ikustea asko gustatu zaie. Gehiago egon beharko liratekeela diote. Ikusiko dugu, bat egon da eta ikusiko da.

Zeinu hizkuntza Legebiltzarrean ikusetik musikan ikustera, salto handia dago. Puntu artistiko hori hartu du. Dena itzultzea dagoela erakusten du. Korrikakoa ere horrela izan zen.

Ileak puntan jarri dizkiguzu bati baino gehiagori.

Batek baino gehiagok esan dit hori. Niri Aioraren ahotsak ere ileak puntan jartzen dizkit. Horrela iritsi bada, itzulpena Aioraren ahotsarekin bat eginda dago.

Pertsona entzuleen eta zeinu hizkuntzaren arteko harremanaz egingo du tesia

Heziketa Berezia ikasi zuen lehenengo Ainhoa Moiuak. Hortik sortu zitzaion zeinu hizkuntza ikasteko gogoia. Bilbon ikasi zuen. Itzultzaile lanean ari zen bitartean, Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitatean, Hizkuntzen psikopedagogia ikasketak egin zituen.

Huheziko irakaslea da orain eta itzultzaile lana baztertua dauka. "Lanetik kanpoko orduetan zerbitzuren bat edo beste egiten dute, ez dutelako itzultzaile euskaldunik aurkitzen", zehaztu du Moiuak.

Irakasle lanaz gain, beste lan batean ere ari da: tesia egiten. "Zeinu hizkuntzaren inguruan egiten ari naiz. Zeinu hizkuntzaren inguruko lehenengo euskarazko lana izango da. Dokumentazio guztia ere gaztelaraz eta ingelesez dago. Ea ekarpen txiki bat egin dudana".

Orain arte bere ikasketak lotuko ditu tesia egiteko. "Zeinu hizkuntza ikasten ari diren pertsona entzuleek nola ekoizten duten eta zein transferentzia egiten dituzten ahozko hizkuntzatik zeinu hizkuntzara aztertuko dut. Ea entzuleek zein hizkuntza ikasten duten. Gorrei erakusten zaie ahozko hizkuntza, logopedarekin aritzen dira txiki-txikitatit. Beraiek urratsa eman dute, goazen gu ere beste bat ematera. Nahiz eta ahozko hizkuntza erabili eta nahiz eta gorrak hitz egiten jakin, nik esaten dudana ez du ondo jasoko, ahozko hizkuntza baita oztupoa sortzen duena. Zeinu hizkuntza erabiliz gero, zubia eraikita gelditzen da".

"Niri Aioraren ahotsak ere ileak puntan jartzen dizkit. Horrela iritsi bada, itzulpena Aioraren ahotsarekin bat eginda dago. "

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Inplantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Zeinu hizkuntzaz gain, gorputz adierazpena ere garrantzitsua da, ezta?

Nik gorputz guztia erabiltzen dut sentimenduak transmititzeko eta hori normalean oso pertsonala izaten da. Abesti batek zer ekartzen dizun, Aioraren ahotsa nola bizi duzun, nola bizi duzun beraien musika... itzulpena era ezberdinetara egiten da. Beste itzultzaile bat jarriko bagenu, beste era batera egingo luke. Askotan, hizketan ari garenean, batek gauza bat ulertzen du eta besteak beste bat, gure pertsonalitatearen arabera da. Subjektiboa da oso mezuaren itzulpena. Saiatzen gara objektiboa egiten baina azkenean pertsonak gara.

Irudietan, zeu bakarrik azaltzen zara.

Arropa txuria, beltza edo gorria eramateko esan zidaten. Simple azaltzea erabaki genuen, azkenean mezua transmititu behar zen eta. Itzulpenak egiten ditugunean beltzez jantzita joaten gara, atentzioa ahalik eta gutxiena deitzeko, eta eskuak ondo ikusteko. Transmittitzea da gakoa. Mezuak dauka garrantzia.

Gizartea gorren arazoez kontzientziatzeko balio izan al du?

Urratsak jarraitu behar dira. Oso polita izan da, ezberdina ere bai, orain arte euskaraz ez genuelako horrelako ezer ere ez, baina jarraipena behar du. Zeinu hizkuntzako itzultzailea bizitzako arlo guztietan edukitzea ohitu behar gara. Itzultzaileak ez badago, gorra ezin da inora joan. Eskubidea eman behar zaie gorrei, joan nahi duten ala ez erabakitzeko. Beti bide hori egina egon dadila.

Aurreritzi asko daude zeinu hizkuntzaren inguruan. Orain arte Legebiltzarrean ikusten genuen zeinu hizkuntza, oso serioa zen lekuetan. Bideoklipak beste puntu bat eman dio. Bideoklipa atera denetik batek baino gehiagok galdetu dit ea non ikasten den zeinu hizkuntza. Badirudi interesa piztu dela. Baina jarraitu egin behar da gauzak egiten. Tirada aprobe-txatu egin behar da.

Zerbait buruan bai? Beste talderik etorri al zaizu?

Ez, ez!! Korrikatik deitu zidatenean asko poztu nintzen. Urratsez urrats joan behar gara. Zerbitzu publikoetan eta telebistan ohituta egon beharko genuke itzultzaileak ikusten. Eta ez gaude batere ohituta.

Zeinu hizkuntzan euskara eta gaztelera bereizten al dira? Euskarazko zeinu hizkuntzarik ba al dago?

Euskaraz ez dago. Euskaraz entzun eta entzundakoa itzuli egiten da, hori bai. Baina zeinu hizkuntza eginda dago, Madrident eta Andaluzian berdin ulertuko zaituzte. Katalanek badaukate baina Estatuan zeinu hizkuntza bakarria dago. Dialekto ezberdinak daude. Ogia esateko, nik lau zeinu dakizkit. Madrident bat

erabiliko dute, eta Gipuzkoan beste bat. Baina azkenean antzekoa da. Madrilditik gora eta Madrildik behera bereizten dira. Madrildik Iparraldera dialekto bat eta Madrildik hegoaldera beste bat.

Euskararen kontura etorritz, urteetan "paso" egin dugu zeinu hizkuntzaz, alde batera utzita egon da, eta orain egin behar duguna da, beraien hizkuntza errespetatu eta gure gizartean txertatu, egiten ditugun ekintza guztietan. Euskaraz sortzeko, premia sortu behar da baina horretarako oraindik beharrik ez

da sortu. Premia sortzen bada hobe, baina errespetatu egin behar da daukatena.

Zeinu hizkuntza non ikas daiteke?

Tolosan eta hiriburuetan.

Hezkuntzaren arloan, zer moduz ikusten duzu gorren integrazioa?

Gaur egun saiatzen dira, gorra dauden ikastetxeetan, gelatik kanpoko orduetan zeinu hizkuntzako eskola bat edo beste edukitzen. Gorrekin erabiltzen da zeinu hizkuntza eta entzuleoi ez zaigu erakusten. Entzule

moduan, 18 urtetik aurrera, Gorren Elkartera joan eta ikasteko aukera daukazu. Madrident gehiago erakusten da. Eskola batzuk badaude zeinu hizkuntzaz gain, sistema internazionala ere erakusten dutenak. Hor gor kopurua oso handia da.

Hemen, normalean, gor bat baldin badago erakusten da baina eta normalean, txikitik; handiagotan ez du jarraipenik izaten. Ikasle gorra gelatik ahalik eta gutxiena atera behar da bestela taldea puskatzen da. Hori da orain arte gertatu dena. Hezkuntza Bereziaz ari naiz orokorrean. Barruan saiatu behar da gauza guztiei erantzutea. Gorrez bakarrik ari gara baina

beste arlo ere badaude eta poliki-poliki kontuan hartu beharko genituzke.

Eguneroko bizimoduan ere gorrek zailtasunik aurkituko dute.

Adibidez, medikuarengana joateko itzultzaileei ez diete deitzen eta azkenean paperaren bitartez ulertzen dira. Ezpainak irakurriko dituela pentsa dezakegu baina ezpainaren irazketa ona izateko ondo ahozkatu behar da, ezin da bueltarik eman, argia egon behar da... eta gainera, %30 bakarrik jasotzen da. Azkenean idazten bukatzen dute eta idazketak ere zeinu hizkuntzaren egitura jarrai-

tzen du. Dezente oztopo izaten dituzte beraien egunerokotasunean, medikuarengana joateko edo guk lasai asko egiten ditugun gauzatan. Nik uste euskaldunok enpatia gehiago sortzea badaukagula. Nonbaitera joaten zarenean zerbait eskatzera eta euskaraz ez dakitenean, nola sentitzen garen badakigu. Beraiei hori bera gertatzen zaie, baina askoz ere gehiagotan.

Eusko Jaurilaritzan egon naiz itzultzaile. Gela batean sartzen nintzen, gor bat zegoen, beste guztiak entzuleak ziren. Nik itzuli egiten nuen. Beraien harremana mugatuta gelditzen zen.

“Katalanek badaukate baina Estatuan zeinu hizkuntza bakarria dago. Dialekto ezberdinak daude. Euskaraz ez dago. Euskaraz entzun eta entzundakoa itzuli egiten da, hori bai. ”

“Orain arte, Legebiltzarrean eta leku serioetan ikusten genuen zeinu hizkuntza. Bideoklipak beste puntu bat eman dio. Bideoklipa atera denetik batek baino gehiagok galdetu dit ea non ikasten den zeinu hizkuntza”



Denok ikasi beharko al genuke zeinu hizkuntza?

Nik uste dut, txikitatik ikasi beharko genukeela: jolas bezala hasi eta jakin. Norberaren hautua izango da erabili ala ez erabili, edo gehiago edo gutxiago saiatu. Madriden egon nintzenean ikusten nuen, entzuleek, zeinu hizkuntza zekitela. Txiki-txikitik, haur eskolan, bi irakasle zituzten. Bat gorra eta bestea entzulea. Han gor kopurua handixeagoa zen baina entzuleek eta gorrek, erreferente bat zuten. Irakasle gorra eta irakasle entzulea. Biak ziren denen irakasleak eta zeinu hizkuntza zekiten askok eta askok, egunerokotasunean ikusi eta harremana zeukatelako. Eredu hori hona ekarri beharko litzateke.

Entzumen urritasuna duten pertsonen begira, Ordizian, Ordiziarrock jaialdiaren barruan, gorrei egokitutako kontzertua antolatu dute.

Polita hori da; gorrentzat bereziki ekintzak egin beharrean, beraientzat egokitutako ekintzak egitea. Goazen gauzak egitea, denontzat egokituta. Gauza asko egin daitezke. Adibidez, diskoetan, letrak, brailez idatzita egotea.

1960an esan zen zeinu hizkuntza hizkuntza bat zela

Ainhoa Moiuak azaldu duenez, “1960an esan zen zeinu hizkuntza hizkuntza bat zela. Denbora gutxi da. Ikertzen hasi dira. Izendapen horrek status hobea ematen dio zeinu hizkuntzari. Aurretik debekatuta zegoen eta orain onartuta dago. Orain arte oso mugatuta egon da toki batzutan”.

2007an ere beste aurrerapauso bat eman zen. “Estatu mailan, zeinu hizkuntza aitortu zen hizkuntza moduan. Aitortu da baina ez da gehiago ikusten. Pentsatzen zen izugarritzko urratsa izango zela, toki guztietan ikusiko zela, baina lau urte beranduago, egoera, antzekoa da. Gu kontziente ez garen bitartean horrela geldituko da. Urratsak ematen hasten baldin bagara, gauzak antolatu, itzultzailea jarri eta poliki-poliki normalizat hartzen pertsona bat itzultzen egotea... asko aurreratuko dugu”, gaineratu du goierritarak.

Ordiziarrock, hesiak apurtuz

Erronka handia jarri zieten euren buruari Jon Lekuona eta Urko Ruiz de Apodaka ordiziarrok: musikaren bidez gorrengana iristea. Internetari esker, Malagan aurkitu zuten gorrentzat egokitutako kontzertuak egiten dituen taldea: Funky Punkie Party Clowns. Hamabost laguneko taldea da eta tartean gorren bat edo beste ere badago. Musika, zeinu hizkuntza, gorputz hizkuntza... teknika ezberdinez baliatuz gorrek ere musika sentitu eta ulertu dezaten saiatzen dira. Hiru egun iraungo duen Ordiziarrock 2011, bete-betea dator.

VIII. Ordiziarrock antolatu duzue. Aurtan, orain arteko eskaintzatik zertxobait aldendu egin zarete.

Jon Lekuona: Orain arte beti eskaintza berdina egin izan dugu; pilotalekuan, kontzertuak...

Urko Ruiz de Apodaka: Gaztetxearen urteurrena dela eta kontzertu handiak egitekoak dira. Aurtengo antolakuntzarekin hasi ginenean, kontzertu berezi bat egitea bururatu zitzaigun. Betikoa ez genuen atzera bota nahi, baina diruarekin nahiko larri gabilta eta dena ezin da. Oso ilusionatuta gaude, guretzat ez da listoa jaistea. Alderantziz, igo egin dugula iruditzen zaigu.

Lekuona: Hasieratik garbi izan dugu gorrei egokitutako kontzertua egin nahi genuela. Dena ezin izan da.

Ruiz de Apodaka: Lehenengo momentutik jarri ginen Gorren Elkartarekin harremanetan. Hortik aurrera hasi ginen lotzen.

Zergatik aukeratu duzue gorren kolektiboa? Nola iritsi zarete gorrengana?

Ruiz de Apodaka: Ordiziarrock haztea zaila da. Baina hazteak suposatzen duena suposatzen du. Hankak lurrean edukita, handitze prozesua gelditu eta zabaltze prozesu batera sartu ginen. Iaz bluesa eta jazz sartu genituen, kale ikuskizuna ere bai, beste jende bat erakartzeagatik.

Lekuona: Beti berdina egiten aritu gara eta horrelako berrikuntzek zabaltzea lortzen dute.

Ruiz de Apodaka: Hortik atera zen gorren kontu hau. Gure buruari galdetu genion: zabalkuntza honetatik nora ez gara iristen? Gorrengana. Galdera horretatik abiatu ginen.

Pertsona gorrei egokitutako kontzertua, Euskal Herrian lehenengo aldiz egingo omen da. Bazenekiten gorrei egokitutako kontzertuak egiten zituzten taldeak bazirela?

Ruiz de Apodaka: Ez, ez genekien. Bagenekien Tolosan laburmetraien ziklo bat egiten zela gorrentzat. Hortik argia piztu zitzaigun eta esan genuen:

Zergatik ez gorrentzat kontzertu bat? Orduan hasi ginen Interneten begiratzen. Malagan aurkitu genuen talde bat. Harremanetan jarri ginen eta galdetu genien gustatuko litzaieken Ordiziara etortzea.

Lekuona: Elkartarekin jarri

ginen harremanetan. Ezagunak ere baditugu familian gorrak dituztenak... Azkenaldian ere ikusi dugu kanta baten gorrentzako bertsio bat, Ainhoa Moiuak egin duena...

Ruiz de Apodaka: Ez genuen ezagutzen eta gu ere oso harrituta gelditu ginen. Kasualitatea izan zen. Gu ere asko ari gara ikasten. Sentsibiltate hori lantzen ari gara, ze zaila den gorra izatea.

Lekuona: Nik lankide bat daukat, semea gorra daukana, eta bere esperientziak ia egunero entzuten ditut. Hori bai, garbi utzi nahi dugu, denontzako kontzertu bat egin nahi dugula eta denontzako kontzertua dela. Kontzertua ez da gorrentzako bakarrik. Gorrei egokitutako kontzertua da, baina edozein joan daiteke.

Ruiz de Apodaka: Aurtan gorrak aukeratu ditugu. Hurrengoetan auskalo! Gizartea sentsibilizatu nahi dugu gorren gaiarekin eta ez ditugu gehiago bereiztu nahi.

Zein sistema erabiltzen dute malagarrek?

Ruiz de Apodaka: Bibrazio sistema, bukle magnetikoa, gorputz adierazpena, zeinu hizkuntza, dena azpituatuta joango da, argi sistema berezia jarriko da.

Lekuona: Azken batean, musika zerbait fisikoa bihurtuko da.

Ruiz de Apodaka: Gorrek, zeinu hizkuntzen bidez ulertzen dute zer abesten duten. Baina musika ez dute entzuten. Argi dago musika ez duela inoiz ere entzungo. Baina badaude erak musika pixka bat fisiko bihurtzeko.

Irakurri dugunez, globoak erabiltzen dituzte.

Lekuona: Subgrave batzuk botatzen dira globora eta globoak bibrazioak egiten ditu.

Ruiz de Apodaka: Hori da. Bibrazio sistema ez da hain konplexua. Bakoitzari globo bana emango zaio eta subgrave potentzia batzuk emango zaizkio. Frekuentzia horiek globotara joango dira eta globotan nabaritu-

ko dituzte. Anplifikadoreetan, zulona batzuk jarriko ditugu tirante eta bibrazio horiek hor nabaritu dituzte

Lekuona: Musikariak musika jotzen ikusiko dituzte, antzezpena egiten ere bai... zeinu hizkuntza erabiliko dute.

“Kontzertua ez da
gorrentzako bakarrik.

Gorrei egokitutako kontzertua da,
baina edozein joan daiteke.”



Ekitaldiz ekitaldi

Ekainak 16, osteguna:

18:00etan: D'elikatuzen, Munduko musika instrumentuen era-kustaldi didaktikoa.

"Munduko leku ezberdinetako 8 musika instrumentu bildu ditugu. Betiko instrumentuetatik atera eta instrumentu berezi hauek ezagutarazi nahi ditugu. Nondik datozen, historia, nola jotzen diren... Goierrikoak bertakoak dira. Saiatuko gara buka-eran, Mikel Laboaren 'martxa baten lehen notak' jotzea instru-mentu guztiekin batera".

20:00etan: "La Pulga" txalapartarekin (Flamenco dantzari bat Txalapartarekin fusionatuz), D'elikatuzen.

"La Pulga: Flamenkoa dantzatzen du. Txalapartaren eta flamenkoaren arteko fusioa egiten du".

Ekainak 17, ostirala:

22:00etan: Herri Antzokian, Funky Punkie Party Clowns (Malaga).

Ekainak 18, larunbata:

22:00etan: Kontzertuak: Blues Sesion (Ordizia), El cerdo que grunge (Ordizia) eta Funky Punkie Party (Malaga). Gaztetxean.

"Malagako taldeak Gaztetxean ere joko du. Betiko kontzer-tuak ez genituen albo batera utzi nahi. Plaza ona da Ordiziako Gaztetxea".

Ruiz de Apodaka: Espresio korporala lantzen duten euretako bat edo bi, gorrak dira...

Musikari dagokionean, zein musika egiten dute malagarrek?

Lekuona: Denetik egiten dute: oso musika alaia da, funkia, denetik egiten dute.

'Hesiak apurtuz' jarri diezu leloa Ordiziarrock-ari.

Ruiz de Apodaka: Gorrentzako hesi garbi bat da. Ezin dute edozein kontzertutara joan. Edozein lekutara ezin dira joan. Gauzak ez daude egokituta gorrentzat. Garbi dago gor bati ez diozula entzunarazi behar baina badaude beste sistema batzuk sentsazio horiek sentitzeko.

Sarrerak 5 eurotan daude salgai.

Lekuona: Gure filosofiatik atera egin gara pixka bat, beti doako ekintzak egitearen aldekoak arelako. Baina kasu honetan, kostu handia dago. 15 lagun etorri behar dira Malagatik... behartuta sentitu gara sarrera jartzera.

Ruiz de Apodaka: 350 lagunentzako lekua dago. Herriko tabernan salgai daude. 16an Delikatuzen ere egongo dira eta 17an, leihatilan bertan.

"Gorrek, zeinu hizkuntzen bidez ulertzen dute zer abesten duten.

Baina musika ez dute entzuten. Argi dago musika ez duela inoiz ere entzungo.

Baina badaude erak musika pixka bat fisiko bihurtzeko".



‘Olaberriko istorioak gure helduen eskutik, denok ikasteko’

Kuttun Guraso Elkartearen proiektua saritu du Eskola Publikoko gurasoen Federazioak

Jarduera Onen saria jaso berria du Olaberriko Kuttun Guraso Elkarteak, ‘Olaberriko istorioak. Gure helduen eskutik, denok ikasteko’ proiektuarekin. Bestekak beste, herriko kulturaren, kondairaren eta historiaren transmisioa ipuin eta dvd bidez egitea du helburu. Dagoeneko lehenengo ipuina kalean dago: ‘Olaberria Zeba zenekoa’. Bigarrena ere bidean da.

Eguneroko buruhausteen artean, tartetxo bat hartu, memoria prestatu eta Baikarek, Euskola Publikoko Guraso Federazioak lehenengo aldiz antolatutako Jardun Onen Lehiaketara bidali zuen Olaberriko Kuttun Guraso Elkarteak eskuartean duen proiektua: ‘Olaberriko istorioak. Gure helduen eskutik denok ikasteko’. 27 proiektu aurkeztu dira lehenengo lehiaketara eta hirugarren saria lortu du Olaberriarren proiektuak. “Jarduera Onen Lehiaketa da. Lehenengo aldiz antolatu dute baina dirudenez beste autonomia erkidego batzutan urteak daramatzate”.

Lanak frutua eman du eta hirugarren saria eman diote olaberriarrei. Guraso Elkartekoek gustura jaso dute saria eta sariak lanean aurrera jarraitzeko indarra eman die-

**“Txikiak gara
baina edozein
bezain handi
sentitzen gara.”**

tela onartu dute. Gainera nabarmendu nahi izan dutenez, lehenengo bi sariak jaso dituzten eskolak, eskola handiak dira. “Gu txikiak gara baina edozein bezain handi sentitzen gara”, diote olaberriarrek. “Ilusioa egiten du. Eskola txiki bat gara, beste filosofia batekin... Askotan, etxean baino errekonozimendu gehiago lortzen da kanpoan. Hemen ikusten da, eskolaren inguruan dauden elementu ezberdin horien arteko elkarlan hori baloratu egiten dela, egiten diren gauza txikiak baloratu egiten direla. Eskola Txikia izanik, ilusioa ere handiagoa izan da”, gaineratu dute.

Bildu, jaso eta zabaldu

Eskola Txikiek erronka ugari izaten dituzte. Horietariko bat, herriko haurrak herriko



Sari banaketa Bilbon, Eskola Txikiei eskainia

Ekainaren 5ean, Euskal Eskola Publikoaren aldeko festan egin zen sari banaketa Bilboko Arriaga antzokian. “Sorpresa izan zen, poz handia... Han izan ginen Bilbon ume guztiak hartuta. Denak dotore jantzita eta gu Eskola Txikietako kamisetarekin. Aprobetxatu beharra zegoen”, diote.

Ainhoa Arrietak, Kuttun Guraso Elkarteko lehendakariak Eskola Txikiei eskaini zien saria. “Guretzat oso garrantzitsua da Eskola Txikia izatea eta Eskola Txiki guztiek elkarren berri edukitzea. Horrek asko indartzen gaitu. Proiektuak elkarbanatzea oso aberasgarria da. Horregatik, ez zegoen zalantzarik, zeinentzako izango zen eskaintza. Beste Eskola Txikientzako ere garrantzitsua da sari hau, erakusten duelako, ilusioa eta ideia pare batekin, edozeinek egin ditzakeela gauza politak. Azken batean, ilusioa, lanerako gogoia eta elkarlana behar dira. Horrekin gainditu daiteke edozein oztopo. Ainhoak ere horixe adierazi zuen, txikiak gara baina edozein bezain handi sentitzen gara. Gai gara gauzak egiteko”, azpimarratu dute olaberriarrek.



eskolan gelditzea eta haur kopuruari eustea. "Herritar berriak erakarri egin nahi ditugu eskolara", diote olaberriarrek.

Beste helburuetariko bat, umeei herri nortasuna izatea da. "Haurren nortasuna finkatzeko, Olaberria ezagutu behar dugu: Olaberriko ohiturak, Olaberriren historia, kondairak... herria ezagutu, haurren nortasuna finkatu".

Bi helburu nagusi horiek hartuta, herria, eskola, haurrak eta adinekoak uztartu dituzte. "Guraso Elkarteko bilera batean hala bota zuen guraso batek: zergatik ez dugu ipuin bat sortzen hau-

rrei Olaberriren historia kontatzeko? Begi onez ikusi eta lanean hasi ginen". Herriaren historiarekin batera, istorioak, bitxikeriak... denetik biltzeko asmoa daukate.

'Olaberria Zeba zenekoa'
Pentsatu eta egin. Kulturaren

eta historiaren transmisio lana egiteko bidean, 'Olaberria Zeba zenekoa' ipuina osatu zuten. Iaz, Olentzerok, Olaberriko Eskolako haurrei ekarri zien oparia izan zen. David Vizarro marrazkilariak egin ditu marrazkiak eta gidoia eta testuak, gurasoek

beraiek. "Txitoa da narratzailerak. Eskolako maskota da Txitoa. Haurrak, eskola eta herriak, dena elkartzea nahi genuen. Azkenean nahi genuen, beraien herria ezagutzeari, dena elkartuta. Garrantzitsua iruditzen zitzaigun. Adineko jendea eskolara etorritik denak bat egitea nahi genuen pixkanaka".

Ipuinaz gain, DVD-a ere egin dute gurasoek ipuinera-ko sortutako marrazkiak aprobetxatuz, batez ere, irakurtzen ez dakiten haurrei begira. Ahotsak irakasleek eta gurasoek jarri dituzte. "Irakaslearen ahotsa, irakasle batek jarri zuen. Guraso

David Vizarro marrazkilariak egin ditu marrazkiak; gidoia eta testuak, gurasoek beraiek. DVDaren ahotsa ere irakasle eta gurasoek jarri dute.

ezberdinak hartu genituen. Ez geneukan aurreikusita DVD-arena baina irudiak eskutan edukita, DVD-a egitea erabaki genuen. Irudi finkoak dira", azpimarratu dute.

Bigarrena bidean

Bigarrena prestatzen ari dira dagoeneko. Kasu honetan, ipuin lodixegoa aterako zaie; 24 orrikoa. "Beste gorputz bat eman nahi diogu bigarrenari", diote.

Artikutzako istorioa kontatuko dute bigarren liburuxkan. "Aspaldiko batean, umeen bat desagertu ote zen, ardi bila etxetik joan eta otsoaren batek jan ote zuen... Harri hori hor dago. Gure etxean kontatzen da zein baserrietako neskamea zen, zenbat urte zituen... Saiatzen gara ahalik eta errealeña egiten".

Istorioekin lotuta, irteerak egiten saiatzen dira gurasoak eta ikasleak. "Inguruari ahalik eta etekinik handiena ateratzen saiatzen gara, iruditzen baitzaigu, hemen baditugula beste herri batzutan ez daudden abantaila batzuk. Desabantailak ere izango ditugu, baina abantailak ere bai".

Bigarren istorioa kokatzen den lekura, Artikutzako harriara, joan dira dagoeneko, eta otsoaren kontuarekin lo okerreago egiten duenik ere ba omen da tartean.

Idea asko

Proiektua hasi besterik ez da egin. Ipuin guztiak biltzeko karpeta lodikotea egin dute.

Dena betetzeko asmoa ote daukaten galdetu diegu. "Asmoa dena betetzea da bai. Urtero bat ateratzea nahiko genuke, hamar bat guztira. Ikusiko dugu. Material asko dago. Herriko historia eta kondairak, adineko pertsonak kontatzen dituzten gauzak... badago bai materiala. Baserri asko dago eta pixka bat galdetu besterik ez dago herriko kontuak ateratzeko".

Sokatik tiraka hasi diren honetan gainera, ideia berriak ere sortzen ari zaizkie. "Interesgarria litzateke ezagutzea gure adineko jendea nola bizi izan den, ingurune rural batean nola bizi izan den. Horretarako baserrietara joan, galderak prestatuta eraman eta bideoz elkarriketa grabatzea nahikoa da. Etorkizunerako ere altxor polita izan daiteke", diote.

Oparia

Eguneroko buruhausteen tartean iritsi da saria Olaberriara. "Saria guretzako oparia izan da. Asko espero gabe, ilusioz aurkeztu ginen eta begira! Aurrera egiteko indarberritu egiten zara. Jendeari erakutsi diogu beldurrik ez dela eduki behar eta lanarekin edozein lekutara joan gaitezkeela. Lana eta ilusioa dira sekretuak". Sariak elkartera guraso gehiago hurbiltzen laguntzea nahiko lukete. "Nahiko genukeena da, gero eta guraso gehiago hurbiltzea. Ez dadila izan guraso talde txiki baten erronka partikularra. Benetan jendeak ikusi dezala, merezi duela lanean aritzea".



Udalaren babesa ezinbestekoa

'Olaberriko' istorioak. Gure helduen eskutik denok ikasteko' proiektua aurrera eramateko, Olaberriko Udalaren laguntza jaso du Kuttun Guraso Elkarteak. Lerro hauetatik Olaberriko Udala eskertu nahi du Guraso Elkarteak, proiektu honetan bezala, beste hainbat eta hainbat proiektu aurrera eramateko beharrezkoa baitute Udalaren laguntza. "Hainbat eta hainbat zerbitzu ezingo genituzke eskaini, Udalaren laguntzarik gabe".

Illo horretatik, "gure beste helburuetako bat Guraso Elkarte bezala da, hemen bizitzeagatik haurrek ez dezatela zerbitzu mailan defizit bat izan. Saiatzen gara eskolaz kanpoko jarduerak, zaintza zerbitzuak antolatzen. Goizetan eskolara sartu aurretik zaintza zerbitzua daukagu, urtean zehar estraeskolarrak egiten ditugu (antzerkia, ingelera, pelota eta dantza). Olaberri bertan antolatzen saiatzen gara. Horrek ere kostu bat dauka eta ume kopurua murrizta baldin bada, hainbat jende ere ez da etorri ere egiten, ez zaiolako ekonomiko-ki errentagarri bilakatzen. Askotan zaila izaten da gauzak antolatzea. Esfortzua denoi suposatzen digu eta laguntza beharrezkoa da.Kasu honetan, Udalarena. Jendeak parte hartzeko gainera, prezio onak jarri behar dira. Bestela, jendeak joera handia dauka kanpora joateko", azpimarratu dute Guraso Elkartekoek.

Erronka berriak

Osasuntsu dago momentu honetan Olaberriko Eskola. Datorren ikasturtean 40 ikaslelik gora izango dira. Hazten ari da gainera. "Orain arte 8 urtera arte geneukan eta datorren ikasturtetik aurrera, lehenengo taldea hasiko da 8 urtetik aurrera. Helburua litzateke 12 urtera arte umeak herrian gelditzea. Pixkanaka ari gara urratsak ematen", zehaztu dute.

over Urraki
Bidaietan adituak

**Erreserbatu zure udako oporrak
aurrerapenez eta lortu
% 50 arteko deskontua**

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ZEGAMA OKINDEGIA Eskuz egindako ogi naturala

Inbaxusti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.
Ordizia: Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxu:** Dia, Belarzin. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txitxiki, Uriarte-Pinedo.

XX. txiste eta pasadizo idatzien lehiaketako irabazleak

Hogeigarrenez antolatu du aurten Goierriko Goiztiri Aek-k Txiste eta Pasadizoen idatzien lehiaketa. Aurtengo edizioan, lehenengo saria, Ormaiztegiko Pruden Sanchok lortu du ‘Biolin jotzaile onena’ txistearekin; bigarrena, Ordiziako Joxe Antonio Muxikarentzat izan da, ‘Afal ondorengo komeriak’ txistearekin; eta hirugarrena, Beasaingo gau eskolako ikasle taldeak lortu du ‘Ordezkoa’ txistearekin.

1.Saria: Pruden Sancho

Biolin-jotzailerik onena

Bi gizon Orient Express trenean doaz. Goiza pasatu da, arratsaldea pasatu da, gaua pasatu da... Eta, egunsentia iritsi denean, gizon batek besteari esan dio:

- Aizu, nongoa zara?
- Bilbokoa naiz.
- A zer kasualitatea! Ni Santanderrekoa naiz.
- Ostia! Biok gara iparraldekoak... Eta zuk zertan lan egiten duzu?
- Ni biolin-jotzailea naiz.
- Hara! Ni ere bai! Hau bai kasualitatea!!!
- Ez da posible! Bada, ni oso biolinista ona naiz.
- Aaaaa.... Bada, nik izugarri ondo jotzen dut biolina. Ni bai biolinista ona, ni!
- Bada, ni Espainiako onena naiz.
- Zu? Hori ez da ezer, ni Europako onena naiz.
- Entzun, mutil, eta pentsa ezazu zein ona naizen: nire herriko elizan biolina jotzen dudanean, egurrezko amabirjina negarrez hasten da.
- Hori ez da ezer; berebiziko biolinista ni naiz! Lehengo egunean, Bilboko katedralean jo nuen eta, bukatu nuenean, Kristo gurutzetik jaitsi zen, besarkada handi bat eman zidan eta esan zidan: “zuk bai dakizula biolina jotzen, eta ez Santanderreko beste tipo horrek, nire amari beti negar eragiten diona!!!”.

2. Saria:

Joxe Antonio Muxika

Afal ondorengo komeriak.

Bi lagun bapo afaldu eta trago batzuk hartu eta gero, etxera joateko kotxea hartu eta abiatu egin ziren. Bidean zihoazela, ordea, alkolemi kontrola. Orduan komeriak!!

- Seguru asko, positibo emango diat. Gidatzeko baimena kenduko ziatek eta lanera joateko kotxea egunero behar... Hau dek marka gero!! Zer egingo diat??

- Baaa, 50 eskaintzen badituk, akasooo pasatzen utziko diate –esaten dio lagunak.

Esan eta egin. 50 eskaini eta aurrera... Berehalaxe, ordea, beste kontrol bat..

- Ze pasatzen dek gaur hemen?? Poliziak ze suma al zebiltzek edooo.....!!! Berriz ere berdin jokatu beharko diat, beste la karnetik gabe geratuko nauk....

50 eman eta aurrera oraingoan ere. Baita aurreraxeago ere.... Poliziak orduan:

- Aizak, 100 ematen badizkiak rotondatik ateratzen lagunduko diat.

3. Saria:

Beasaingo gau eskolako ikasleak

Ordezkoa

Eskolan ari ziren lan batzuk egiten, idazlanak, eta ogibidez hizketan ari ziren eta...

-Ea Jaimito, zer ogibide dauka zure amak?

-Nire amak? Nire ama sustituta da.

-Sustituta? Nola ordea, zer ogibide da hori?

- Bueno, nire ama, beste gizonezkoen etxeetara joaten da eta han ohean sartzen da beraiekin, gero diru bat ordaintzen diote eta amaitutakoan etxera etortzen da.

-Ez, Jaimito, hori ez da sustituta, hori prostituta da!

- Ez, prostituta nire izeba da, baina, hura gaixo dagoenean nire ama joaten da.

Sanjoanetako neskatxen esku dantza: dantza eta udako solstizioa uztartuz

Soka-dantzaren oinarritzko dantza-egituraren aldaera bereziak deskribatu zizkigun Juan Inazio Iztuetak 1824an idatzitako Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia liburuan: gizon-dantza, gazte-dantza, etxeandre-dantza, galaen esku-dantza, neskatxen esku-dantza eta edate edo karrika-dantza.

Beasainen baditugu une honetan bai gizon-dantza (Agintariena), bai gazte-dantza eta galaen esku-dantza izan daitezkeenak (helduena eta haurren aureskua). Baina ez daukagu emakumeak protagonista izan ohi ziren esku-dantzarik (etxeakoandre edo neskatxenik).

Goierrin galdua da garai batean emakumeek soka-dantza ateratzeko ohitura.

Beasainen, udako solstizioa ospatzeko eta udari ongietorria emateko “alamartxo” edo san joan sua pizten da; eta erromeria egin ohi zen gutxienez orain ehun urtetik hona.

Beste herrialde guztietan bezalaxe, San Joan loreak biltzen ziren eta lizar edo elorri adarrak jartzen ziren etxeetako ateetan; edota “Sanjoan Arbolea” prestatzen zuten hainbat auzotako mutilek.

San Joan bezperako suan dantza egitea oso zabaldua dago Euskal Herrian. Abaltzisketan eta Donostian, esate baterako, soka-dantzak



egiten dira; Agurainen, Arbizun, Urdiainen... mota ezberdinetako dantzekin ospatzen dute San Joan bezpera; galduak egon arren, ezagutu izan dira ezpata-dantzak, ingurutxoak eta beste hainbat dantza ere.

Guk, dantza eta udako solstizioa lotuko ditugu, eta denboraren poderioz galtzen ari zaizkigun osagai hauek gogora ekartzen saiatuko gara aurtengo ekainaren 23ko ilunabarrean:

Eguzkia

Sua izaten da San Joan gaueko osagai nagusia. Suak Eguz-

kia elikatzen du sineskera zaharren arabera. Alamartxoak piztu aurretik dantzatzuko dugu bere inguruan. Zaharra erre eta berriari ateak zabaldu.

Ura

Gauerditik aurrera, ura bedeinkatu egiten da, ahalmen bereziak hartzen ditu, sendatu egiten du eta zoriona ekartzen du. Maitasunaren sinboloa da.

Landareak

Bildu egiten dira, lore-sortak egiten dira eta etxeak adarrez hornitzen dira. Emankortasunaren sinboloa dira.

Airea

Bizitza ematen digu, eta dantza egitera gonbidatzen du, borobilean, beti ere.

Gazte eta gaztetxoak izan ohi dira San Joanen inguruko ospakizun hauetako partaide nagusiak eta beraiei emango diegu protagonismoa. Dantza-taldeetan daukagun neskatila kopuru altua kontutan izanda, eta tradizioan beraiek protagonista dituzten

dantzen egungo hutsuneari begira, 11-14 urteko neskatxek zuzendu eta dantzatzuko dute Esku-dantza hau. Eta hauentzat “heldutasunerako” igarotzea suposatuko du nolabait, pasabide-erritu modukoa bat.

San Joan Belarrak edo ‘Belar onak’

San Joan egunaren inguruan bildutako landareek zorte ona ematen dute, eta gaitzak, trumoiak, eta beste urruntzen dituztelako ustea oso zabaldua dago. Emakumeek San Joan loreak eta eskura zituzten beste batzuk biltzen zituzten: milorriak, iratzeak, arrosak, krabelinak, lizarra, elorria, gereziak...

Hainbat lekutan, San Joan gauerdiz iratzeak lore bihurtzen irela pentsatzen zen.

Guk dantza egin aurretik bilduko ditugu, eta buruan apaingarri gisa koroia egiteko erabiliko ditugu. Gero, etxean gorde eta hurrengo urteko sua pizteko erabiliko ditugu, zaharrak erre eta berriak ekarri.

www.aurtzaka.com

San Joan kanta

Kanta edo esamolde asko aurki daiteke egun honen inguruan, eta bereziki, egiten den suarekin lotuta. Guk dantza, kantarekin aberastu nahi izan dugu, eta Idiazabalgo Urtsuaranen Juan Garmendiak jaso zuen letra hau erabiliko dugu neskatxek abestu dezaten:

*San Juan dala, San Juan dala zapatu arratsaldean.
Hamalau atso tronpeta jotzen zazpi astoren gaiñean.
Hiru ale ta gaztaina kaskalik ez, gaztañeri hontan
sorginik ez.
Hemengo batek horko biri, balio badek etorriari!*

Beasain

XIV. Igartza literatur-sorkuntzako beka idazle berrientzat

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak aurtun ere, Igartza literatur-sorkuntzako bekaren oinarriak kale-ratu dituzte. Idazle berrientzat beka izaten da, eta 6.000 euroko dirulaguntza izaten da jokoan.

35 urtetik beherako idazleek dute beraien literatur proiektuak aurkezteko aukera. Lan argitaraturik izatekotan, helduentzako narratibaren liburu bat baino gehiago ez izatea da baldintza. Narratibako lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko aurkez daitezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak. Partehartzaile bakoitzak, lau aldakitan eta bere benetako izena agerian jarri gabe, ondorengo agiriak aurkeztu behar ditu bere proiektuarekin batera:

Batetik, landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki iritzitako ezaugarriak zehaztuz, halanola, argumentua, egitura, luzera, estiloa... Bestetik, idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.

Eta azkenik, gutunazal itxia, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun-agiriaren fotokopia.

Proiektuak, ekainaren 30 baino bidali behar dira Beasaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Karmele Jaiok, Igor Esntakonak eta Xabier Etxeberrriak osatuko dute epaimahaia. Bekaren diru kopuruaren erdia, irabazle izendatu bezain laster jasoko du irabazleak eta beste erdia, idazlan amaitua entregatu eta epaimahaikoek onespina emandakoan. Proiektu irabazleak, izendapena jaso eta urtebeteko epea izango du gehienez, idazlan amaitua Beasaingo Udalari helerazteko.

Goierrri

XX. Lazkao Txiki Bertsopaper lehiaketa

Uztailaren 1ean bukatuko da, Argi Berri elkarteak antolatutako XX. Lazkao Txiki Bertsopaper lehiaketan parte hartzeko epea. Nahi adina bertsopaper bidal daitezke. Ohi bezala, hiru maila izango ditu lehiaketak:

Gaztetxoan maila: 13 urte artekoentzat.

Gutxienez 2 eta gehienez 4 bertso idatzi beharko dira. Neurria eta doinua libreak dira, ez ordega gaia. 'Nik euskaraz, zuk zergatik ez?' izango da gaia. Hiru sari banatuko dira: lehenengoarentzat, 200 euro; bigarrenarentzat 100 euro eta 3.arentzat 50 euro.

Gazteen maila: 14-18 urte artekoentzat.

Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dira. Gaia, neurria eta doinua libreak dira. Sariak: lehenengoarentzat 300 euro; bigarrenarentzat 200 euro eta hirugarrenarentzat 100 euro.

Helduen maila: 1992an edo aurretik jaiotakoentzat.

Maila honetan ere, gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dira eta gaia, neurria eta doinua libreak dira. Sariak: lehenengoarentzat 500 euro; bigarrenarentzat 400 euro eta hirugarrenarentzat 300 euro.

Lanak, Ordiziako Argi Berri Elkartera bidali behar dira (Gipuzkoa kalea, 15-behea. 20240 Ordizia). Sari banaketa, irailaren 11n egingo da Ordiziako Euskal Jaiei barruan.

ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ERREPASOA, ERREKUPERAZIOAK
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
INFORMATIKA IKASTAROA
IKASKETA TEKNIKAK
IKASKETA ARAZOAK, IRAKURMENA,
ULERMENA, ARRETA...
INGELERA TRINKOA

Joan Iturralde, 5 Beasain
tel.: 943 160 120
www.ikaskide.net

MUJICA 19

MUJICA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promoziok, Eraikuntzak, Erreformak...

www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Idiazabal

Ekaineko ekintzak

Ekainak 15, asteazkena:

18:30etan: Guraso elkartean, Musika Eskolako ikasleen kontzertua.

Ekainak 16, osteguna:

17:30etan: Jubilatuen elkartean, hitzaldia: 'Zahartzea eta baliabide pertsonalak'. Hizlaria: Jose Luis Martin.

Ekainak 18, larunbata:

Zelaako kiroldegian, ikasturte bukaerako jaia:

11:30etan: Haurrentzako jokuak.

13:00etan: Play-back saioa.

14:00etan: Bazkaria.

Ondoren: Txan magoaren emanaldia.

Ekainak 19, igandea: San Adrian eguna:

07:00etan: Otzaurterako autobusa Mujika jatetxearen aurretik abiatuko da. Autobusean joan nahi duenak ekainaren 17, ostirala, eguerdiko ordubata baino lehen izena eman behar du udaletxeko idazkaritzan.

Eguerdian: txistulariek San Adriandik bueltan datozenei harrera egingo diete herri sarreran.

14:30etan: Bazkaria herriko plazan (5 euro). Erromeriara joateko izena eman dutenek bazkaria doan izango dute (txartela San Adrianen jasoko dute).

16:00etan: Haurren pilota partidak pilotalekuan. Finalak jokatuko dira.

18:00etan: Herriko haurren dantza saioa pilotalekuan txistulariek lagundurik.

Ekainak 21, asteartea:

09:00etan: Errekarteko autobus geltokian, txangoa Berriatura. (Antolatzailea: Jubilatuen elkartea).

Ekainak 23, osteguna: San Joan gaia:

Urteroko moduan, Gazte Asanbladak San Juan suaren inguruko festa antolatzen du. Sua piztu ondoren akelarrea ikusteko aukera izango da. Entseguak: ekainaren 10ean eta 20an, 19:00etan Txomenanen. Ekainaren 23an 20:00etan izango da azkeneko entsegua. Antolatzailea: IGA.

Legorreta

San Joan bezperako ekintzak

Ekainak 23, osteguna: San Joan bezpera:

18:00etan: Legorretako Pilota Eskoletako haurren pilota erakustaldia.

20:00etan: Udalak ardoa eskainiko du bertara hurbiltzen den ororentzat.

20:00etan: Erromeria Solano Musika Eskolako trikitilarien eskutik.

21:00etan: San Joan Sua piztuko da. Jarraian Elekun abesbatzaren eta Irritzi-Alai dantza taldearen ikuskizuna eskainiko digute. Ondoren Gizon Pikua san juan sutan erreko da.

21:00etan: Sardina dastaketa plazan Legorretako Irritzi-Alai dantza taldearen alde.

Jarraian: Trikitixa Solano Musika Eskolako trikitilarien eskutik.



Korpus eguna

Ekainak 25, larunbata:

09:30etan: Diana Legorretako Musika Eskolako ikasleen eskutik.

10:30etan: Haurren Herri Krossa.

11:30etan: Helduen XXXIII. Corpus Christi Krossa.

13:00etan: Krossaren sari banaketa.

18:00etan: XXII. Ardo Dastatze Txapelketa.

18:30etan: Udalak ardoa eskainiko du herritar eta bisitari guztientzat.

19:30etan: Usadiozko meriendak plazan.

Ondoren goizaldera arte, kalejira eta dantza saioa Burrunbazale txarangarekin.

Erakusketa

Ekainaren 25ean, egun guztian, Legorretaren azken 50 urtetako bilakaerari buruzko Argazki Erakusketa ikusi ahal izango da udal pilotalekuaren atzeko perretean. Eguraldia txarra bada, elizako zimitorioan jarriko da.

Beasain

Arriarango jaiak

Ekainak 25, larunbata:**17:00etan:** Jaiei hasiera suzirikin.**17:30ean:** Pilota partiduak.**19:30ean:** Sari banaketa eta trikitilarien hasiera.**21:00etan:** Herri afaria eta dantzaldia goizalderarte.**00:00etan:** Txotx denboraldiaren amaiera.**Ekainak 26, igandea:****11:30ean:** Arriarandik Mandubirako II. Txirrindu lasterketa.**12:00etan:** Sari banaketa eta hamaiketako Intxaurpe elkartean.**17:00etan:** Haurrentzat jolasak eta film emanaldia.**19:00etan:** Herri kirol saioa aizkolariekin.**Ondoren:** Trikitilariak.**Ekainak 29, asteazkena: San Pedro eguna:****12:00etan:** "San Pedro" meza eta ondoren luntxa Intxaurpe elkartean.**14:30ean:** Herri bazkaria.**17:30ean:** Karta joko txapelketak: musean eta punttuan. Festei amaiera trikitilarien laguntzarekin.

San Pedro jaiak Ezkiagan

Ekainak 25, larunbata:**14:30ean:** Bazkari herrikoia.**18:00etan:** Musika jaialdia.**19:00etan:** Buruhandiak.**Ekainak 28, asteartea:****10:00etan:** Puzgarriak.**18:30ean:** Apar festa.**19:30ean:** Buruhandiak eta txistulariak.**20:00etan:** Txistorra eta sardina jana.**22:00etan:** San Pedro sua.

Beasain

Ekaineko ekintzak

Ekainak 16, osteguna:**18:30ean:** Musika Eskolako ikasleen kontzertu berezia: Instrumentu anitzak eta Koral taldea, Igartza jauregian.**Ekainak 17, ostirala:****20:00etan:** Musika Eskolako Koral taldea eta abesbatza, Andre Mari Zeruratuaren Elizan.**Ekainak 18, larunbata:****19:30ean:** Banda, Loinazko San Martin plazan.**Ekainak 19, igandea:****08:30ean:** Mendi irteera: Trinitatera (Iturgoien).**12:00etan:** Emakumez osatutako Abesbatza taldearen entsegu irekia, Usurbe Antzokian. Zuzendaria Javier Busto.**12:00etan:** Ballet emanaldia: Gala Ballet eskolaren ikasturte amaierako ikuskizuna, Igartza jauregian.**Ekainak 20, astelehena:****20:00etan:** Harizko orkestraren kontzertua, Andre Mari Zeruratuaren Elizan.**Ekainak 23, osteguna: San Joan bezpera:****21:30ean:** Txistularien igoera Barrendain plazara.**22:30ean:** Neskatzen esku-dantza Aurtzaka taldearen eskutik.**22:30ean:** San Joan sua. Ondoren, dantzaldia Koxkola txarangarekin, Barrendain plazan.

Erakusketa

Ekainaren 24tik uztailaren 3ra:

Bear pintura tailerran egindako lanen erakusketa, Usurbe Antzokian.



kutxa

Ordizia

Otegi Enea-Majoriko festak

Ekainak 23, osteguna:

18:30etan: Suziria.

19:00etan: Sardina jana.

19:00etan: Goierriko Bertso Eskolako Gazteak eta Maitane eta Saioa trikitilariak.

19:00etan: San Joan sua.

Ekainak 24, ostirala:

18:00etan: Suziria.

18:00etan: Haur krosa.

19:30etan: Buruhandiak eta txistulariak.

22:00etan: 'Jalisco band' taldearekin dantzaldia.

Ekainak 25, larunbata:

10:00etan: Suziria.

10:30etan: Haurrentzako marrazki lehiaketa.

11:00etan: 5. Sukaldari lehiaketa.

12:00etan: Saioa eta Maitane trikitilariak.

13:00etan: 5. Sukaldari lehiaketaren sari banaketa.

13:15etan: Pintxo salmenta.

14:30etan: Auzo bazkaria.

16:30etan: Otegi-Enea Majoriko 3. Mus txapelketa.

17:00etan: Haur jolasak.

18:00etan: Urdaneta Dantza Taldea.

19:00etan: Haur mozzorro lehiaketaren hasiera.

19:30etan: Buruhandiak.

20:00etan: Mozzorro dantzaldia eta sari banaketa.

22:00etan: The Pardels Musika Taldea.

Ekainak 26, igandea:

11:00etan: Suziria.

11:15etan: Ipuin kontalaria.

12:00etan: 5. Tortila lehiaketa.

13:00etan: Ardo dastaketa.

13:00etan: Eskarabilla, Altamira eta Otegi-Enea Majori auzoen arteko herri kirolak.

13:10etan: 5. Tortila lehiaketaren sari banaketa.

13:15etan: Pintxo salmenta.

16:00etan: Toka lehiaketa.

18:30etan: Gorriti eta bere animaliak.

20:30etan: Buruhandiak.

21:30etan: Festen bukaerako suzeria.

Larraitz

II. Txindoki bertikala mendi lasterketa

2. Txindoki bertikala antolatze lanetan dabiltza Abaltzisketan. Ekainaren 19an izango da, goizeko 10etan hasita. Erlojuaren aurkako mendi lasterketa izango da; Euskadiko kopako lehen proba. Larraizko langatik abiatu eta Txindokiko gailurreraino igo beharko dute korrikalariak (3.878 m.). <http://txindoki-bertikala.blogspot.com/>.

Ordizia

Kirolaren astea

Ekainak 16, osteguna:

19:00etan: Hitzaldia: Denboraren kudeaketa eta elikadura osasuntsua. Hizlariak: Mariam Ijurjo eta Idoia Noain. Barrenan.

Ondoren: Katering osasuntsua, Barrenan.

Ekainak 18, larunbata:

10:00etan: Eskola arteko triatloia, Altamiran, Trigoi Triatlloi Taldeak antolatuta.

17:00etan: Umeentzako kirol ekintzak, plaza nagusian.

19:00etan: Wu Shu erakustaldia, Euskadiko Selektzioaren eskutik, Garagartza plazan.

20:00etan: Kirol produktuen eta zerbitzuen zozketa.

20:30etan: Capoeira erakustaldia, Garagartza plazan aurrena eta herriko kaleetan gero.

Beasain

Arrastaka Mendi taldea: Midi d'Ossau eta Siala

Arrastaka Mendi Taldeak ekainak 18 eta 19rako irteera antolatzen du. Bi helburu izango dituzte: 18an, Midi D'Ossau (2.885 m) igotzea eta 19an, Gouretteko eski estazio ondoan dagoen Sialako via ferrata egitea. Informazio gehiago: www.arrastaka.net. Irteera honetan parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa da mendiko federatu txartela izatea.

Goierri



AUTODETERMINAZIOA GERO ETA ARGIAGO LARRAITZ Uztailak 2

Autodeterminazio eskubidearen aldarria Larraitzen

Uztailaren 2an, goizeko 10,30etan hasita, 'Itsasondo 1931. Goierri 2011. Autodeterminazioa gero eta argiago' lemapean, autodeterminazio eskubidearen aldeko festa izango da Nazioen Munduak antolatuta. Bi mila lagun bildu nahi dituzte Larraizko zelaian "Euskal Herrian inoiz egin den pertsonen osaturiko mosaiko erraldoia egiteko. Zerutik ikusiko da goierritarren hitza", diote antolatzaileek. Eguerdian, 14:30ean, bazkaria izango da Abaltzisketako pilotalekuan. Kantua, txaranga, musika eta bertsolariak izango dira bazkalondorena alaitzen.

Nazioen Mundukoek adierazi dutenez, "Nazioen Munduak urteak daramatza Goierriin sentsibiltate ezberdinen arteko topagunea eraikitzen. Autodeterminazio eskubidearen inguruan Goierriko eragile, elkarte, udal eta pertsona ezberdinak batzen. Aurten gainera urteurren berezia ospatzen dugu goierritarrok. 80 urte betetzen dira Goierri eta Euskal Herrian lehen aldiz autodeterminazio eskubidearen aldeko lehen agiri ofiziala sinatu zenetik. 1931. urtean Itsasondoren sinatu bazen, 2011. urtean Goierriko 18 udaltek sinatu berri dute Nazioen Munduak sustatutako lgartzako manifestua".

Ataun

Otso Festaren amaiera

Ekainak 18, larunbata: Kirol finalak:

10:00etan: Frontenisa.

11:00etan: Tenisa.

11:00etan: Eskupilota.

12:00etan: Pala.

Ondoren: Sari ematea Auzoeta kiroldegian.

Lazkao

San Benito ikastolako ikasleen antzerki emanaldia

Ekainak 17, ostirala

19:00etan: San Benito Ikastolako ikasleen 'Antzerkia... bizitza, bizitza... bizitza?' antzerki emanaldia, Azeria Kulturgunean.

Ordizia

Ekaineko ekintzak

Ekainak 16, osteguna:

18:00etan: Ordiziarrock 2011: D'elikatuzen, Munduko musika instrumentuen erakustaldi didaktikoa (historia, teknika eta erakustaldia).

20:00etan: Ordiziarrock 2011: 'La Pulga' txalapartarekin (Flamenko dantzari bat Txalapartarekin fusionatuz), D'elikatuzen.

Ekainak 17, ostirala:

22:00etan: Ordiziarrock 2011: Herri Antzokian, Pertsona gorrei egokitutako kontzertua. Euskal Herrian lehenengo aldiz burutuko den ekintza, hain teknika ezberdinak erabiliz: Funky Punkie Party Clowns (Malaga).

Ekainak 18, larunbata:

22:00etan: Kontzertuak: Ordiziarrock 2011: Blues Sesion (Ordizia), El cerdo que grunge (Ordizia) eta Funky Punkie Party (Malaga). Gaztetxean.

Ekainak 23, astelehena:

22:00etan: Garagartza Plaza, San Juan sua.

Ekainak 26, igandea:

10:00etan: Beti Argi Bandaren Diana

13:00etan: Beti Argi Bandaren Korpus Eguneako kontzertua.

Ekainak 28, asteartea:

19:00etan: Patata-Tortilla lehiaketa. Antolatzailea: Hitzaro Euskara Elkarte. **20:00etan:** Jakintza Dantza Taldearekin erromeria.



Segurako jaiak 1991. urtean

Duela 20 urte, Segurako jaietako koadrilen egunean, ateratako argazkian Robin Zurrut koadrilako lagun batzuk ageri dira.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Markel Telleria, Imanol Agirre, Aitor Arrondo, Xanti Ariztimuño, Aitzol Telleria, Joseba Osinalde eta Koldo Muñoa.

Beheko ilaran: Oier Berasategi, Iñaki Ormazabal, Ion Iñaki Izagirre, Igor Otegi, Aitor Leturia, Jon Ariztimuño, Jabier Olaziregi, Jokin Etxeberria, Ibon Etxeberria eta Iker Garmendia.

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko mea

© 943 88 77 26 ALTZAGA

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ZAHARRA • BERRI
IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN

Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zka: KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

orain
ingeleraz
Jere bai!!



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



eskaintza akademikoa

arautua **goi mailako zikloak** (euskaraz)

- Sareko informatika sistemen administrazioa
- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak (Automatizazio eta robotika industrialak)
- Metal eraikuntzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea

erdi mailako zikloak (euskaraz)

- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak

ez arautua

- Langileen etengabeko formazioa
- Langileen formazio espezifikoak
- Langabetuen formazioa

Tel: 943 651 147 (Josune)
943 650 664

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

aurrematrikula

Ekainaren 1etik 10era


matrikula epea

Uztailak 4tik 8ra

zure etorkizuna ziurtatzen dugu!!

- Lankidetzaren hitzarmenak 150 enprekin
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromisoahartzen dugu


www.tolosaldea.com



UO11

**NORA JOAN
AUKERATU ZUK**
GAINONTZEKO
EGINGO DUGU GUK

abio@abio.es
www.abio.es



VIAJES
ABIO

BIDAIK
943 805 311

PlanB!

EMOZIOAK OPARITZEKO AUKERA HOBERENA

ABENTURAK
EMOZIO HANDIKO BIZIPENAK
VIP ESPERIENTZIAK
GOLFA
LANDA-ETXEAK
HOTEL BITXIAK
NATURA-PARKEETAN EGONALDIAK
HOTEL XARMANGARRIAK
DISEINUZKO HOTELAK
FAMILIAREKIN EGONALDIAK
HOTEL URBANOAK
BARCELÓ HOTELAK
ZAPOREAK
AUTORE SUKARRITZA
PARADOREAK
EGONALDI GASTRONOMIKOAK ETA ENOLOGIKOAK
LASAITZEKO EGONALDIAK
SENTSAZIOAK BIZITZEKO EGONALDIAK
BRITAINIA HANDIAN EGONALDIA
ITSAS-BIDAIK
KARIBEA...

1

ABIO BIDAIKEN ESKURATU PlanB!
24 bizipen baino gehiagoren artean aukeratu ahal izango duzu.

2

HARTZAILEAK BIZIPEN BAT AUKERATZEN DU
Astero berritzen ditugu bizipenak eta www.planb.es webgunean guztiak ikus ditzakezu.

3

ERRESERBA EGIN ETA GOZATU ESPERIENTZIAZ
Bizipena aukeratu ondoren egin erreserba 902 331 334 deialdean eta www.planb.es webgunean.

ORAIN ZURE BIDAIAREN EROSKETA GURE WEBGUNEAN EGIN DEZAKEZU
www.abio.es